

BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2020ko uztailaren 27an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2020ko uztailaren 21eko datarekin, BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. (BIMEP)ren Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O.ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren ordezkari, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea dena, bertaratu ezina adierazi duena.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, presidente gisa jardungo du Marqués jaunak.

Halaber, Iker Alaña Zorrilla jaunak, kontratazio batzordeko idazkariak, bertaratze ezina adierazi du. Alaña jaunaren bertaratze ezina dela eta, Colón jaunak idazkari gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Prozedura irekiaz, BiMEP-EKO SAIKUNTZAKO EREMUKO BALIZAREN OBRA HILA ETA BIZIAREN MANTENTZE PREBENTIBOA ETA ZUZENTZAILEAREN KONTRATUA (BIM/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Prozedura irekiaz, BiMEP-EKO SAIKUNTZAKO EREMUKO BALIZAREN OBRA HILA ETA BIZIAREN MANTENTZE PREBENTIBOA ETA ZUZENTZAILEAREN KONTRATUA (BIM/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Dorleta Marina andreak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta Yago Torre-Enciso jaunak, BIMEPeko Zuzendari Tekniko moduan, berretsi du.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, batzordera bertaratu da Marina andrea, Kontratuaren Arduraduna den aldetik.

Dorleta andreak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die eta baita ere bertan azaltzen den esleipen proposamena.

Azalpenak eta argibideak eman ondoren, egiaztatu da Commercial Diving Activities SL enpresaren eskaintzan jasotako irizpideetako baten prezioa balio anormal edo neurrigabeen eraginpean dagoela, eta, beraz, batzordekideek eskatu dute ausarkeriazko bajaren presuntzioa ebazteko prozedura gauzatzeko, eta, behin hori eginda, dagokion txostena berriro aurkezteko.

2. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei BIMEPek esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

3. Beste gai batzuk.


Ez da beste gairik izan.

BiMEPeko entsegu-eremuan enpresa bat instalatzeko negoziazioen ondorioz, beharrezkotzat jotzen da berehala 2. itsaspeko konektorea balizatzeko lanak egitea, eta enpresa konektore horretara konektatu beharko da eta. 40.000 eurotik beherako obra bat denez, zuzeneko esleipenaren bidez kontratatu daiteke, kontratu txikia izanik. Kontratuaren arduraduna, Dorleta Marina Ortiz and.ak "BiMEPeko energia elektrikoa eramateko kablearen 2. konektorea berreskuratzeko kable bertikalaren instalazioa" izeneko kontratuaren alderdi garrantzitsuenen berri eman die Kontratazio Batzordeko kideei, hauek egiaztatzen dutelarik adierazitako kontratuaren ezaugarriek SPKLn aurreikusitako baldintzak betetzen dituztela.

4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A.ko Kontratazio Batzordeko presidentea eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marqués González jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Álvaro Colón Barriocanal jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria